

# BIHOTZAREN IPAR ALDEA

DOLORES  
REDONDO



erein

# BIHOTZAREN IPAR ALDEA

23

---

uzta gorria

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*Liburu honen argitalpenak Kultura eta Kiroletako Ministerioko laguntza izan du.*



*1. argitalpena: 2019ko Azaroan*

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

Itzultzailea:

Danele Sarriugarte - Rosetta TZ

© Dolores Redondo

© EREIN. Donostia 2019

ISBN: 978-84-9109-499-9

L. G.: SS - 1110/2019

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

# BIHOTZAREN IPAR ALDEA

DOLORES  
REDONDO

Itzultzailea:  
Danele Sarriugarte  
RosettaTZ

erein

*Aitorri eta Juneri, «apur bat gehiago igeri egiteari»  
uko egin diotelako, nirekin egoteko. Pribilegio hutsa da.  
Eduardori. Beti, dena.*

*Nire agenteari, Anna Soler-Pont, ekarpen handia egin didalako,  
gidatu nauelako eta etenik gabe lan egin duelako.  
Eskerrik asko, nire eleberrietako «polizia gaiztoa»  
eta nire eguneroko aholkulari ona izateagatik.  
Mila esker, bihotzez, eta, «segituko dugu».*

*Maria Cardonari, ilusioz, tinkotasunez eta alaitasunez  
heltzen diolako lanari eta erakutsi duelako gauzak «hobeak»  
direla, irribarre eginez gero. Mila esker dena errazteagatik.*

*Ricard Domingori. Ikusezina ikusteko gai zara oraindik.  
Urte askotarako. Jose Antonio Arrabal zenari, zeina  
klandestinitatean hil baitzen, baina ez ahanzturan.  
Mila esker nire irakurle izateagatik, amaierara arte.*

## IPAR ALDEA

Liburu hau nobela-sorta baten parte da, iparrear oinarrizten diren nobela-sorta baten parte. Nobela batzuetan, Amaia Salazar da protagonista; beste batzuetan, ordea, pertsonaiak eta argumentuak gurutzatzen dira eta unibertso komun bat sortzen dute, non iparra ez baita beti puntu kardinal bat, ezpada historia guztiak gidatzen dituen ildo bat.

Giza bihotzaren iparreko aldea baita munduko tokirik barkartiena.

## HITZAURREA

Elizondo

Amaia Salazarrek, hamabi urte zituela, hamasei ordu igaro zituen basoan galduta. Goizaldean aurkitu zuten, bidea galdu zuen tokitik hogeita hamar kilometrora, iparrerantz. Topatu zutenean, konorterik gabe zegoen, euritan, eta arropa belztuta eta erreta zerraman: suaren garretatik salbatu berri duten Erdi Aroko sorgin bat zirudien. Azala, berriz, zuri-zuria zeukan, garbia eta hotza, izotzetatik atera berri balitz bezala.

Gauza bera esaten zuen Amaiak beti: apenas oroitzen omen zen hartaz guztiaz. Bidea utzi ostean, bere memoriaren klipetan segundo gutxi batzuk baino ez omen ziren gorde, bizpahiru irudi, behin eta berriro errepikatuta. Reynauden praxinoskopioak bezala ekiten zuen bere oroitzapenen abiadura bizi-biziak: mugitzen ari diren estanpak bata bestearen atzetik azkar-azkar ipinita, dena geldirik dagoela ematen du. Batzuetan, Amaiak bere buruari galdetzen zion basoan barrena ibili ote zen. Agian, hantxe bertan eseri zen, mugitu gabe, zuhaitz haren altzoan, luzaroan, harik eta bere burmuina halako hipnosi batean murgildu

eta zuhaitzaren silueta primitibo eta amatiarra bere gogoan betiko iltzatu zen arte. Igande goiz arrunt bat zen eta paseo bat ematera joan zen, Ipar txakurra lagun zuela, aurreko udaberrian ezagututako Arantza mendi-taldearekin batera. Gustatzen ziztaion basoa; hala ere, izeba Engraxiri atsegina emategatik joan zen, izebak hilabeteak baitzaramatzen tematuta, gehiago atera behar zuela eta gehiago atera behar zuela. Biek ere ondotxo zekiten Amaia ezin zela bere herrian ibili. Azken urtean ibilaldiak mugatzen-mugatzen joan zen, eta ordurako, eskolara joateko baino ez zen ateratzen, eta igandetan izebari mezetara laguntzeko. Gainerakoan etxean geratzen zen, suaren parean eserita, irakurtzen edo etxeko lanak egiten, edo, bestela, izebari garbiketara edo sukaldean laguntzen. Edozein aitzakia erabiltzen zuen etxean geratzeko. Edozein, herrian gertatzen ari zenari aurre ez egiteko.

Beti kontatu zuen gauza bera: zuhaitz bati begira egon zela, eta ez zuela besterik oroitzen. Baina ez zen egia, ez guztiz. Memorian gordeta zeukan zuhaitza, bai, baina berdin-berdin oroitzen zituen ekaitza... Eta basoaren bihotzeko etxea.

Konortea berreskuratu zuenean, bertan topatu zuen aita, erietxeko ohearen alboan makurtuta. Aurpegia zurbil, ile bustia bekokira itsatsita euriaren ondorioz. Betazalak gorrituta eta handituta, negarraren negarraz. Amaiak begiak ireki zituenean, berarengana makurtu zen aita, babestu nahian, eta lasaitasun-printzak agertu ziren ordura arte kezka hartutako aurpegian. Aitaren aurpegiak halako samurtasuna eragin zion, non emozioak ito egin baitzuen ia. Maite zuen, betidanik maite izan zuen eran. Horixe esatekotan zegoen, baina aitaren ezpain epelak sentitu zituen berri ondoan xuxurlan:

—Amaia, ez kontatu inori. Maite baldin banauzu, egizu niregatik. Ez kontatu.

Maitasunak, aitaren aldera inoiz sentitu zuen eta oraindik ere sentitzen zuen maitasun handiak estutu zion bularra, mina



egin arte. Hitzak barruan hil eta hantxe geratu zitzaizkion, ahots-kordetara loturik, oroitzapen mingarri baten moduan. Ez zen gai izan txintik esateko, eta buruarekin egin zuen baietz: isiltasun hura izan zen aitari onartu zion azken sekretua eta isiltasun harengatik utzi zion aita maitatzeari.

## LEHEN ZATIA

*Konpositorea etengabe ari da bukatuko ez  
duen obran pentsatzen.*

STRAVINSKI

*Hildakoek ahal dutena egiten dute.*

ENGRAXI SALAZAR

ALBERT ETA MARTIN

Brooksville, Oklahoma

*Albert*

Albertek hamaika urte zituen eta mutiko ona zen berez, baina erailketak gertatu ziren egunean ez zuen gurasoen agindua bete. Ez zuen haiei kontra egiteko asmorik, baina pentsatu zuen azkenean ez zela ezer gertatuko, aurreko ohartarazpenetan ez baitzen ezer gertatu. Eguraldi-iragarpenek behin eta berriro esan zuten ekaitz handi bat sortzen ari zela, han goian haize beroek eta hotzek talka egin eta tornadoak leherraraziko zituztela lurrean. Baina, egia esan, udaberriaren hasieratik zebiltzan denak erne, zain. Amak ozen ipintzen zuen sukaldeko telebista, eta ez zuen sekula itzaltzen: guttiz debekatuta zegoen bolumena jaistea edo kanala aldatzea, nahiz eta albistegiek gauza bera errepikatzen zuten beti. Alberten gurasoek serio-serio hartzen zuten tornadoen asuntoa, baina haurrak ez zekien zergatik. Azken batean, haien etxea ez zuen inoiz inongo tornadok kaltetu. Beraz, goizean, lasai asko adierazi zuen Jonestarren seme Tim ikustera zihoala, baina gurasoek ez zioten etxetik irteten utzi. Hiru urte lehenago, ekaitz batek Jones familiaren etxaldea jo eta bertan txikitu zuen,

eta halako zerbait berriro gertatzeko arrisku handia zegoen. Hortaz, Albert ez zen inora joango, eta kito. Etxean geratuko ziren denak, eta alarmak pizten zirenean babeslekura jaitsiko ziren.

Albertek ez zuen protestarik egin. Gosaritako katilua harraskan utzi eta atzeko atetik alde egin zuen isilean. Jonestarren etxaldera zihoan bide erdia egin orduko, gauza arraroak nabaritu zituen. Goiz parteko hodeiak abiadura betean zebiltzan, eta eguzkiak, horien arteko zirrikituak aprobeztatuz, argi-itzalak marrazten zituen soroetan. Lur arrasean, geldirik zegoen dena: geldirik belardiak, geldirik makina astunak aletetik babesean, mutu txoriak. Albertek belarriak zorrotzu zituen eta txakur baten marru bakartia entzun zuen, baina txakur bat ote zen benetan? Jonestarren etxaldea begiztatzearekin batera altxatu ziren lehen haizekadak. Korrika hasi zen, izaturik, etxearen aurrealdeko mailak igo eta atea jotzen hasi zen, ukabil eta beso. Erantzunik ez. Atezko aterantz jo zuen orduan, zabalik egon ohi baitzen beti; gaur ez, ordea. Eskuekin pantaila egin eta, kristalaren aurka bermatuta, sukaldea aztertu zuen. Ez zegoen inor. Eta orduan aditu zuen. Bi pauso atzera egin eta etxearen albotik begiratu zuen. Hantxe zetorren tornadoa, orroka, belardi hutsean barrena, iluntasun pusketa beldurgarri bat balitz bezala, berekin zekartzala hautsa, lainoa eta suntsipena. Albert ez aurrera ez atzera geratu zen une batez, tornadoaren etorrerak eta indarrak liluraturik; aldi berean, begiak malkoz bete zitzaizkion, belduraren eta hondar harrotuaren eraginez. Ingurura begiratu zuen, jakin nahian ea inora ihes egin zezakeen, ea inon babes zitekeen.

Jonestarrek gordeleku bat zeukaten, etxaldearen aurreko aldean egongo zen akaso... Baina Albert ez zegoen ziur eta bestela ere ez zeukan hara inguratzeko astirik. Ukuilurantz egin zuen korrika, munstroari azken begiratu eman, eta lasterka jarraitu zuen eraikin txikirantz, hura behintzat irekita egon zedin

erregutuz. Esku-zartada batekin ireki zuen sasi-sarraila, ateburuaren hozkadura batean iltzez hala-hola trabatutako ohol puska. Barrutik itxi zuen. Hasieran ilunpea abaildu zitzaion, baina laster ohitu zen zirrikituetatik sartzen zen argi eskasera. Arna-sestuka ari zen, partez korrikaldiarengatik eta partez ukuiluko kiratsarengatik: oiloen lumek eta zirinak itolarria eragin zioten. Patrikak haztatu zituen inhalagailuaren bila, baina berehala gogoratu zitzaion non utzia zuen: telebista ondoko mahaian. Malkoei eutsi eta kanpoan orro betean zebilen piztia aditu zuen. Leunago ari ote zen orain? Urruntzen ari zen, agian? Lurrean etzan zen, jaramonik egin gabe praken oihal fina zeharkatu zuten mokordo bigun eta epelei, eta oholen artetik behatu zuen. Tornadoak norabidez aldatu bazuen, orain atzera zetorren berriro, are indartsuago etorri ere. Izaki bizidun bat zirudien, bidean harrapatutako guztiak osaturiko izaki bat. Albertek buelta eman eta barrurantz begiratu zuen, honezkero iluntasunera ohiturik, eta orduantxe ikusi zituen animaliak estreinakoz. Oiloak elkarren gainean pilaturik zeuden, txoko batean isilik eta trinko bildurik, korner bat balira bezala. Ondotxo zekiten beren azkenetan zeudela eta une horretantxe jakin zuen umeak bera ere hilko zela. Dar-dar batean, hegaztiak zeuden tokirantz joan zen, ahalik eta gehien uzkurtu eta haien azpian ezkutatu zen istant batez, tornadoak etxaldea jo aurretik. Ordura arte, hegaztiak hotsik egin gabe onartu zuten beren patua, baina tornadoa iristeaz bat zarataka hasi ziren, karaka luze eta sakonak eginenez, gizakien izu-laborrizko garrasien itxurako karakak. Albert bera oihuka hasi zen, amari deika; sentitu zuen aireak ihes egingen ziola biriketarik eta parez pare ikusi zituen inoiz medikuak eskema baten bidez erakutsiak zizkion albeolo txikiak, hutsik eta beren baitara tolesturik, oxigenoari eutsi ezinda. Marruka jarraitu zuen hala ere, osorik hustu zituen barrenak, eta ahalegin berezia egin zuen mukizu baten txilioa zirudien soinu hura aditzeko. Handik gutxira, bere garrasia aditzeari utzi

zion, eta konturatu zen huraxe zela amaiera, kanpoko piztiaren orroak hartu zuela dena. Ukuilua erori aurreko azken unean, be-roa sentitu zuen: pixa parrastada bat zangoetan behera.

### *Martin*

Eguzkia dizdizka ari zen zeru garbi eta urdinean, zein baino zein, traba egingo liokeen inongo hodeirik gabe. Apokalipsiaren ondorena burlaka ari zitzaiela zirudien. Martinek izerdi tanta bat nabaritu zuen buruan behera, ile labur eta txukunean barrena, eta geratu egin zen. Urdurituta, eskua pasatu zuen burutik, eta kezka-izpi batekin egiaztatu zuen alkandora umeltzen hasia zitzaiola. Zapata dotoreen puntarekin, lurzoruan pilatutako ezpalak eta hondakinak apartatu zituen, eta zulo bat egin zuen, maletatxoa sartzeko modukoa. Atera zuen patrikatik hari zurizko zapi bat, eta lepatzea lehortu zuen. Ondo tolestu eta atzera gorde zuen, eta bere itxuraren errepasoa egin zuen jarraian: txukun-txukun zeramatzan hala prakak nola oinetakoak. Jakarekin, ordea, ez zuen asmatu: denim leunez egina zegoen, eta itxura serioa ematen zion. Tornadoen ostean bero-sapa nagusitu ohi da, eta hobe izango litzateke jaka arinago bat aukeratu balu. Inguru guztia zegoen txikiturik, salbu eta aletegi gorri txiki bat. Haren ondoko eskaileretatik jaitsiz gero, hantxe topatuko zuen Jones sendiaren babeslekua. Maletatxoari heldu eta harantz egin zuen. Atetzarrak zabalik zeuden, parez pare, eta barruko kirtenetan kate lodi bat zegoen zintzilik: garbi zegoen han barruan gordetakoek presaka atera zirela. Une batez geratu, eta sotoko lur ilunari zerion usaina aditu zuen: onddoen eta zohikatzaren kutsua nabaritu zuen, eta pixa-arrasto leun bat. Bihotzaren taupada nabaritu zuen, gero eta azkarrago. Han ez zegoen inor. Martin etxalderantz abiatu zen, etxaldearen hondakinetarantz.

*Albert*

Albert iratzarri egin zen. Begiak zabaldu baino lehen konturatu zen ezin zela mugitu, berebiziko presio bat igartzen zuen bularraren gainean. Jones familiaren ahotsak entzun zituen han urrunean, eta deika hasi zitzairen, oihuka. Birrikak estuturik zeuzkan, zamaren zamaz, eta hiru arnasketa egin orduko galdu zuen kordea.

Berriro esnatu zen, argi mingarriak itsuturik. Ez zekien zenbat denbora igaro zuen senik gabe, baina erabaki zuen oraingo honetan ez zitzaiola gauza bera gertatuko, ez zuela historiak menderatuko eta zentzua galaraziko. Bere egoeraz pentsatu zuen: ezin zen mugitu. Taula batek, oilategiaren teilatuaren itxurako ohol batek, osorik estalita zeukan, baina Albertek pentsatu zuen haren gainean beste zerbaitek egon behar zuela, izugarrizko zama batek. Ezker eskuaz oholaren ertza haztatu zuen, ez baitzen oso zabala: ukuiluko habe lodietako baten zanpatuko zuen, seguruena. Ahotik hartu zuen arnasa, hatsanka. Bekokia sutan zeukan, egurrezko ezpalek azal pusketak erauzi baitzizkioten, eta sudurra, berriz, guztiz buxatuta zeukan, mukien eta odolaren ondorioz; hala, ez zuen hegaztien usain itogarria nabaritzen. Egiturak bularra estutzen zion eta ezkerreko hanka hautsi ziola ematen zuen. Harrapaturik egonda ere, hanka preso zeukala sentitzen zuen, eta urraturik, kristal pusketak bat balitz bezala. Eskuineko eskuaren ondoan hegazti baten hilotz epela zetzan. Negarrari ekin zion, baina ondotoxo zekien ez ziola beldurari amore eman behar; horregatik, asma-erasoaldiak baretzeko jarraibideak oroitzen saiatu zen. Ahotik hartu zuen arnasa, sakon eta nekez, bularraren gainean zeukan taula astunak uzten zion bezain sakon. «Ederki ari zara, Albert; ederki ari zara maitea»: amaren ahotsa entzun zuen, asmak jotzen zionean alboan jartzen zitzaionean bezala. Amarekin akordatzean, negargura egin zitzaion berriro ere, malkoak etorri zitzaizkion begietara, eta mutiko ezdeus eta mozolo bat zela sentitu zuen. Bere buruari

errieta egin eta, bere borondatearen kontra, halako astinaldi batek hartu zion gorputza, burutik hasi eta hanka birrinduraino. Minaren minez, arnasestuka hasi zen, une batzuk lehenago lortutako kontrol hauskorra galduta. Beraz, jarraian, arnasketak kontatu zituen, amaren irudia gogotik uxatu, eta apur bat lasaitu zen. Ondoren, burua eskuinerantz biratu zuen, bekokian harrazkaz gehiago eginez, eta taulen arteko zirrikituetatik inguruari antza hartzen saiatu zen.

Baserrian jaioa eta hazia zen Albert, eta zegoen tokitik zerua ikusteko gai izan ez arren, argiaren nolakotasunari esker berehala jakin zuen eguerdia zela eta tornadoak indarrez desagerrarazi zituela goizeko hodei guztiak. Era berean, bururatu zitzaion zorte handia zela Jones jaunak belarra bezperatan ebaki izana, bestela ezinezkoa suertatuko baitzitzaion zelaian barrena zetorren gizonari handik behetik erreparatzea. Kolpean jabetu zen gizon hura ez zela Jones jauna. Intsignia bat zeraman bularraldean ñir-ñirka, eta maletatxo bat eskuan. Albertek sakon hartu zuen arnasa, bularrak ahal bezainbeste bete, eta garrasi egin zuen: kurrinka zakar eta ito bat atera zitzaion. Gizonak ukuiluaren hondakinetarantz begiratu zuen. Albertek pentsatu zuen gizona berarengana hurbilduko zela, baina ez zen hala izan. Antza denez, gaztetxoaren eskuin eskuaren alboan etzanda egondako oiloa ez zegoen hilda, eta, taulen arteko zirrikitua baliatuta, lasai asko atera zen zelaira. Gizonak hegaztiarekin lotu bide zuen apur bat lehenxeago entzun zuen soinua, eta etxalderantz egin zuen berriz. Albert negar marruka hasi zen, itotzeko arriskuaz ahaztuta. Azken batean, orain bazekien, ziur jakin ere: hil egingo zen.

### *Martin*

Etxaldera hurbildu ahala, hondamendiaren ahapeko intziriak ezagutu zituen. Dozenaka aldiz entzun zituen. Hitzek ez zuten



garrantzi handirik. Tragedia batetik bizirik ateratako guztiek berdin hitz egiten dute, salbuespenik gabe. Eztarrian itotako ahotsak halako grina patetiko eta itxaropentsu bat helarazi nahi du, baina berehala odolusten da, berehala galtzen ditu indar apurrak, jabeek beren etxearen hondakinak miatu bitartean, zerbaiten bila, itxaropena emango dien edozer gauzaren bila, zera horri esker tragediatik bizirik atera izanaren ustezko zoriona elikatuko dutelakoan.

Hamasei urte inguruko neska bat koloretako fularrak berreskuratzen ari zen. Hondakinen azpitik atera eta airean astintzen zituen, gimnasten antzera. Hauts apurrak sakabanatuta, lepoa biltzen zuen haiekin. Neskak ikusi zuen lehenik. Familiari ohartarazi zion, beltzez margoturiko azazkal laburrekin eta hatz luzeekin seinalatuz gizona. Inoiz leiho bat izandako hutsunetik begiratu zioten: ezpalez jositako zelaia gurutzatzen ari zen Martin, etxaldera bidean. Martinek pozarren begiratu zion familiari. Bi mutiko zeuzkaten: bata, nerabea, hamabost-hamasei urteren bueltakoa; bestea, berriz, haur bat, hamabi urte eskas ere izango ez zituena. Seme zaharrenak rock talde baten elastikoa zeraman, eta gazteak, berriz, mutil bati zegozkionak baino txima luzeagoak. Jones jauna espero bezalakoxea zen. Zinkurinka ari zen, etxaldearen aurrealdeko eskaileretan eserita. Martin ohartu zen Jones jaunak zenbait gauza utzi zituela harmaila baten gainean: botila bat ur, txokolatzeko barratxo batzuk eta pistola bat. Buroa hondoratuta zeukan, eskuekin eusten zion halako inpotentzia keinu izugarri batean, eta bien bitartean, bere ama zaharrak suabe-suabe kulunka eginarazten zion, kontsolatu nahian, haurtxo bat balitz bezala. Handik ez oso urruti, berrogeita bost urte inguruko emakume batek jakin-minez eta lotsarik gabe begiratu zion Martini. Jones andre gaztea behar zuen. Argala eta ederra zen. Ilea gorritz tindaturik zeraman, baina kolore artifizial samarra zen eta ez zion ondo ematen. Besoen artean txakur txiki ergel bat zeukan, zaunka eta zaunka ari zena. Martinek bularreko

intsignia ondo ikusten zela egiaztatu zuen berriro ere. Familiako kide guztiak poztu ziren bera ikusten, esku artean zeukatena bertan behera utzi, eta, senez-edo, etxeko ataria izan zen tokirantz hurbildu ziren, nahiz eta, ordurako, han paretarik egon ez. Jones andrea izan zen suspertzen lehena. Txakurtxo askatu gabe, alkandora atondu zuen, ilea txukundu, eta eskaileretan behera abiatu zen, Martin irribarre zabal batekin agurtzeko prest. Martinek irribarrea itzuli zion: gorroto zuen, bihotzez gorroto ere, gai izan zelako halako gaitza eragiteko, halako ustelkeria sortzeko, halako izugarrikeriak egiteko, Jaungoikoa bera haserre-razteko. Eskua luzatu zion, eta emakumearen bostekoa ukitu baino lehen hartu zuen erabakia: berez, atsoarekin hastea izango litzateke logikoena, baina, oraingo honetan, emakumea akabatuko zuen lehenik.

### *Albert*

Albertek garrasiak eta tiroak aditu zituen. Begiak zabal-zabal ireki eta negar egiteari utzi zion. Agian, itxurak itxura, egun hartan alde zebilkion haizea.

## MENDIKO IZAERA

FBIren akademia, Quantico, Virginia  
Asteazkena, 2005eko abuztuak 24

Amaia Salazar bigarren lerroan eserita zegoen, deseroso. Goiz samar iritsi zen aretora, ia hutsik zegoenean. Orain, ordea, areto eder askoa izanagatik, txikia zirudien, gaurko hitzaldirako jendetza biltzen ari baitzen. Azken egunotako eskolak ez ziren halakoak izan. Azken egunetako eskolak polizia europarrei zuzendu zitzaizkien espreski; gaurkoa, ordea, eskola magistral bat omen zen, eta FBIko agenteak eta kadeteak ere bertaratu zitezkeen, hala nahi izanez gero. Amaiak hoztasunez begiratu zien bere alboko eserlekuetan jarri nahian hurbildu zitzaizkion bi agente trajeduni, eta gauza bera egin zuen FBIko polo urdin bereizgarria zeramaten bi kadete irribarretsuekin. Ez zuen konpainiarik nahi. Ikastaroko eskola guztien artean, elkartruke-programaren barruan biltzen ziren prestakuntza-eremu guztien artean, Dupree agente bereziaren hitzaldia zen denetan interesgarriena. Eta, itxura guztien arabera, berdina pentsatzen zuen aretoa leporaino bete zuen jende-saldoak. Gerthak, adin ertaineko polizia-inspektore alemanak, irribarrez agurtu zuen Amaia, eta alboan

eseri zitzaion. Polizia europarren artean, Gertha eta biak ziren emakume bakarrak. Gainera, gizon kideek hotz samar hartu ziztuzten, horregatik, ez zen harritzekoa andre alemana Amaia-rengandik gertu-gertu ibili izana, iritsi ziren unetik bertatik. Hasiara batean, Amaia ez zen askorik fidatzen emakumearekin. Atsegina zen, jatorra, baina baita berritsua ere. Gehitxo aukeran. Egia da ez zela hizketakidea konortetik gabe uzten duen horietakoa, ez eta gupidarik gabe galdekatzen dutenetakoa ere, baina aski izan zituen bi gosari, bi bazkari eta aireportutik akademiara egindako bidaia bere bizitza guztia aletzeko.

—Mendikoa —esan zion Gerthak.

—Zer?

—Zera, seguru mendi ingurukoa zarela. Nire senarra mendialdekoa da, eta gogotik saiatu behar dut hari hitzak ateratzeko.

—Egia esan, bailara batetik nator.

Barre egin zuten. Gerthak hitzak eta askoz gauza gehiago atera zizkion lau egunetan. Ziurrenik, errazagoa delako gauzak inori konfesatzea, ez baldin baduzu inoiz gehiago ikusiko, edo, agian, Gertha Scheineder inspektoreak bazekielako entzuten, hitz egiten bezainbeste. Azkenerako, inoiz inori kontatu gabeko sekretuak azaldu zizkion Amaiak hari. Behin baino gehiagotan, goizeko ordu txikiak arte hitz egin zuten. Homizidio-talde baten burua zen Gertha: taldean berrogeita bost pertsona ziren, eta horien artean hogeita hamazortzi ziren gizonak. Gogor borrokatu behar izan zuen inguru hartan errespetu zezaten lortzeko, baina, hala ere, ez zion inori herrarik gordetzen.

Gerthak lehen hitza esan baino lehen, trajedun gizon bat Amaiaren alboan eseri zen.

—Inspektoreordea, zure bila ibili naiz han eta hemen. Uste nuen agenteen aretoan egongo zinela, besteekin batera...

—Kexa-plantak egiten ari zen, eta mezua indartzeko, irribarre egin zion, luzeegi. Amaiak begirada jaitsi zuen, irribarrea ikusteari uzteko.

Emerson agentea zen. Ikastaroak iraun bitartean, Amaiari lagundu behar zion: instalazioak erakutsi, prestakuntza egiten lagundu, tokietara eraman, irakasleak aurkeztu eta, bere taldearen eta klabearen bidez, ariketa teknikoak egiteko behar zituen datuak eman. Tarteka, gainera, Amaia limurtzen saiatzen zen...

—Bai, hara, lehentxeago etorri naiz, eserleku on bat hartu nahi nuen, hitzaldi hau asko interesatzen zait.

—Bai, zuri eta beste askori —adierazi zuen Emersonek, eta areto ia beteari erreparatu zion—. Dirudienez, Dupree agenteak zale amorratuak ditu hemen. Entzun al duzu inoiz? Ezagutzen duzu?

—Orain dela hiru urte bere hitzaldi batera joan nintzen, Bostoneko Loyola unibertsitatean; garai hartan hantxe ikasten nuen-eta. Ilaran jarri nintzen programa sinatu ziezadan, eta bostekoa estutu nion, besterik ez. Ikastaroaren laburpenean dioenez, Dupree agentea arduratuko da gure hurrengo seminarioaz, eta ondo prestatu nahi nuke.

Emersonek irribarre egin zuen, harroxko, bekain bat altxatuta.

—Beste zerbait al dakizu? —galdetu zion Amaiak, ikusirik Emerson gogoak akabatzen zegoela jakin bazekien hori kontatzeko.

—Dupree agente bereziak bere metodoak ditu. Bere eskolak ez dira beti gainerako guztion eskolak bezalakoak. Ekintza-unitate baten burua da, ez da irakaslea. Tarteka, hitzaldi bat eskaintzen du, edo artikulua bat argitaratzen, baina betiere barne-mailan. Gaurkoa, Europol taldearen prestakuntzan parte hartzeko erabakia, salbuespen bat da.

—Berarekin lan egiten duzu, ezta?

—Tira, ez da guztiz hala... —Gogoz kontra onartu zuen, argi zegoen—. Batzuetan bere taldearekin ateratzen naiz. Nahiago nuke sarri-sarri izango balitz, baina agian, etorkizunean, lortuko dut... Komunikazio-eremuko babes-taldeko kidea naiz ni, Stella Tucker agentearekin batera. Tucker bera Dupreeren taldean

dago, beraz esan genezake Dupreerentzat lan egiten dudala, zeharka bada ere. Jarrerak aztertzeo eremuaren barruan hamaika alor daude. Ekintza-unitateetan, adibidez, landa-agente kriminalistak ibiltzen dira, baina ikerketarekin loturiko beste gauza asko hemen egin beharra dago, kanpoan gaizkileen bila dabiltzanei behar bezala laguntzeko.

«Gaizkileak», hala esan zuen, haur txiki batekin ari balitz bezala, eta gehiegizko irribarre bat eskaini zion berriro ere. Amaiak ez zuenez zirkinik egin, tonu profesionalean jarraitu zuen Emersonnek:

—Hemen dihardugun ikertzaileok hiru ekintza-taldeentzat egiten dugu lan. Jakina, kriminalista naiz, eta aditua naiz datuen analisian. Ez dirudi hain gauza inportantea, baina sekulako garrantzia du ikerketak burura eramateko.

Bi gauzak batera joango balira bezala, aretoko argiak jaitsi ziren eta orobat isildu ziren ikus-entzuleen hotsak. Orduan, foku zuri indartsu bat nagusitu zen, eta bete-betea argitu zuen oholtzaren erdian zegoen atril bakartia.

Dupree tauladaren eskuinetik agertu zen eta oinez joan zen argizko eraztunera. Gizon argala eta dotorea zen, ile iluna zeukan, laburra eta ondo orraztua, eta, hura ikusita, Amaiak berehala pentsatu zuen armadan ibilitakoa behar zuela. Aurpegi zurbil-zurbila zeukanez, begien inguruko iluntasuna areago nabarmentzen zitzaion, eta insomniadun porrokatuaren itxura ematen zion. Traje urdin ilun bat zeraman, guztiz apaina, eta horrekin batera alkandora zuria eta multzoari ongi ematen zion gorbata bat. Bizarra egina zeukan. Atrilaren parera iritsi zenean, zehaztasun milimetrikoz kokatu zen bertan, baina ez zuen paperik ez bestelakorik atera. Amaiak bere kautan pentsatu zuen diskurtsoa aurrez utziko ote zuen euskarriaren gainean: hori jakinez gero, hobeto ezagutuko lituzke agentearen izaera eta aurreikuspeneko joera. Bere buruari zin egin zion amaieran arretaz begiratuko zuela ea ezer jasotzen ote zuen atriletik.

Programak zekarren biografia laburraren arabera, Dupreek berrogeita lau urte zituen, Louisianan jaio zen eta ikasketa oparoak egin zituen: zuzenbidea, ekonomia, artearen historia, psikologia eta kriminologia ezagutzen zituen. Urtebete zen FBIko Jarrera Zientzien Unitateko hiru landa-taldeetako bat zuzentzen zuela; hori baino lehen, bost urtez jardun zen halako unitateetan lanean. Dupreek kokotsa altxatu zuen, zango bat aurreratu, eta gorputzaren pisu guztia beste hankan ipini zuen; hala, besoak natural kokatu zituen aldaken albo banatan, eta aretoan bildutako ikus-entzuleei begiratu zien, patxadaz. Bi le-  
 rro atzerago eserita zegoen norbait txaloka hasi zen, baina berehala isildu zen. Amaiak oholtzari begira jarraitu zuen, tinko, baina, antza, zenbait agentek buelta eman bide zuten, arduragabe hari kargu hartzeko, traje dotoreen zeta-soinuak aditu baitzituen. Ez zitzaizkien halako gauzak batere gustatzen: kirolari zegozkion gisa horretako zabarkeriak –garrasiak, oihuak, mar-  
 rruak eta txaloak–.

Dupreek eskua altxatu eta kolpe txiki bat eman zion mikrofonoari. Trumoi baten adinako soinua zabaldu zen aretoan barrena. Atrilerantz makurtu, begiratu altxatu eta aretoaren atzealdean omen zegoen norbaiti hitz egin zion:

—Ikus-entzuleak apur bat argitzerik bai, mesedez? Ez badituzte ikusten iruditzen zait ez naizela inorentzat ari. —Irribarre egin zuen, etsipenez—. Eta gehiegitan sentitzen naiz horrela...

Iruzkin horrekin ikus-entzuleak poltsikoratu zituen. Argia egin zenean eta Dupree agentea haiek ikusteko gai izan zenean, lasai antzean agertu zitzaizkion denak.

Areto osoari erreparatu zion, norbaiten bila ari balitz bezala. Amaia ikusi zuenean, begira geratu zitzaion une labur batez, eta, ondoren, atrilera so egin zion berriro. Une bat izan zen, une bat baino ez. Amaiak bere buruari esan zion seguru asko bere atzean zegoen baten bati begiratu ziola benetan, ez berari, baina orduantxe konturatu zen Emerson beha zeukala. Emerson ere jabetu

zen kontuaz, hortaz. Dupree publikoari zuzendu zitzaion eta hizketan hasi zen.

—Gauza jakina denez, gure ikerketan guztiz premiazkoa da biktimen profila ezartzea; hala, ageriko biktimen hautaketa aztertuta, gure helburura irits gaitezke-eta. Gaur, ordea, beste gai bati buruz hitz egin nahi dizuet: oso garrantzitsua da biktima posibleen erregistro bat ezartzea, horren bidez serieko hiltzaile baten presentzia antzemateko. Hiltzaileak hautatu ohi duen biktima-motari erreparatuko diogu, hiltzailea bera agertu edo ezagutzera eman aurretik ere.

Hasperen-nahi bat zabaldu zen areto osoan zehar. Dupreek Amaiari begiratu zion berriro. Amaiari hitz egin zion.

—Uste zabaldua da hiltzaileek krimena erabiltzen dutela beren mina garbitzeko, izan ere, askotan biktima izan baitira krimen-egile baino lehen. Uste guztien artean, baina, hauxe da arriskutsuena: hiltzaile guztiek nahi omen dute harrapa ditzaten, atxilotu ditzaten, beren krimenak ez baitira arreta-eskaera izugarriak baizik, beren sufrimenduaren erakusgarri gordinak baizik, eta, hala, jakina, ez dira buruko gaitzak aintzat hartzen.

Emerson urduritzen hasi zen.

—Zer arraio...

Dupree agente bereziak eten bat egin zuen eta areto osoari hitz egin zion berriro.

—Hipotesi horiek diotenez, nabarmendu nahia da basakeriaren helburu bakarra, eta hiltzaileek ez diote inoiz hiltzeari utziko, krimenaren bidez lortu baitute, azkenean, zerbait izateko bidea, norbait izateko bidea, garrantzia lortzeko bidea. Askotan ego-gose horrek galtzen omen ditu, zeren, erakutsi beharraren beharraz, akatsak egiten dituzte, eta poliziak harrapatzen ditu. Bada, kontuz ibili, usteak erdi ustelak baitira, batez ere ikertzaileentzat, eta frogak argi erakusten dute serieko hiltzaile guztiak ez direla jende konpultsiboa eta gaizki antolatua. Are, hiltzaile



batzuek ondo samar ezagutzen dituzte beren «berezitasunak», eta, sarritan, trikimailuak baliatzen dituzte, ikertzaileak nahasteko helburuarekin. Nolabait esatearren, beren bila dabilen ikertzailearen gogoan sartzen dira, eta krimenaren gertalekuak desitxuratzen dituzte, edo aztarna faltsuak uzten dituzte, ikertzaileok pentsatu dezagun begien aurrean daukaguna beste gauza bat dela. Gisa horretako hiltzaileak urtetan jardun daitezke beren lan makabroak egiten, baita diskrezioz egin ere: beren arrastoak eta hildako biktimen aztarnak ezabatzen dituzte, edo, bestela, pertsona horiek desagertu egin direla, ihes egin dutela, istripu bat izan dutela edo beren buruaz beste egin dutela sinetsarazteko gai dira. Horretarako, arrisku handiko biktimak aukeratu ohi dituzte, hau da, beren desagerpenaz inor gutxi jabetuko litzatekeen jendea aukeratzen dute, gizarteak baztertutako jendea: drogazaleak, sexu-langileak, etxegabeak, eskaleak eta agiririk gabeko migratzaileak. Gisa horretako harrapariak zehatz-mehatz aukeratzen dituzte beren biktimak, jakinik halako taldeetako kideak barra-barra mugitzen direla. Estatu Batuen ezaugarri nabarmen bat dugu horixe, eta lana zailtzen digu; zuentzat, ordea, polizia europarentzat, lehen hala ez bazen ere, orain, Batasuneko kide diren herrialdeen artean mugarik ez dagoenez, egoera antzekoa da. —Hori esan eta ezkererantz begiratu zuen, Amaia eta haren kideak zeuden tokirantz—. Gisa honetako hiltzaileak ez dute nahi, ezta inondik ere, harrapa ditza ten. Ez daukate inongo arazorik beren bizitza osoan herritar eredugarriaren itxurari eusteko, ez dute nabarmendu nahi, topatu dute beren txokoa munduan.

Eten bat egin zuen, eta, ondoren, hauxe esan zuen, betiere Amaiari begira:

—Gisa honetako hiltzaileak deabruaren tankerakoak dira. Guztiok uste dugu ez direla existitzen, eta horretan datza beren asetasuna eta boterea. —Irribarre txiki bat egin zuen, eta ikus-entzuleek ere bai.

Amaiak ez ikusiarena egin zuen, Emerson agentea so zeu-kala konturatu ez balitz bezala, baina Gertharen ahotsa argi eta garbi entzun zuen:

—Zuri esan dizu.

Dupree areto osoari zuzendu zitzaion berriro.

—Homizidioen ikertzaileak identifikatu egin behar ditu bat egiten ez duten elementuak eta ohiko ikerketa-ildoak landu behar ditu: hilketaren onuradunak, jeloskortasunak, sexua, drogak, dirua, herentziak, txantajeak. Serieko hiltzaileen kasuan, aldiz, ez da halako motibazio arruntik izaten, hilketaren saria psikologikoa izan ohi baita. Horregatik erreparatu behar diogu subjektuak bere buruari ematen dion sariari, zer premia asetzen ari ote den ulertzeko. Hitzaldi honen eta prestakuntza-eskoletan egingo dituzuen ariketen helburua da elementu komunak eta bat egiten ez duten elementuak identifikatzea. Adibidez, biktima-mota jakin batekin ari zaretenean, edo desagerpen bat ikertzen ari zaretenean, edo gorpu bat agertu den tokian, elementu horiek identifikatu ditzakezue eta ikusi ea suizidio edo istripu gisa aurkeztu den hori ez ote den, benetan, hilketa bat, edo hilketa-serie bat. Baina nola ikertuko ditugu atxilotzeko gai izan ez garen hiltzaileak? Nola osatuko dugu datu-base bat, ez badugu daturik ezagutzen? Nola ezagutuko dugu mamu baten jarrera, guk existitzen dela ez jakitea bada bere helburua? —Eten bat egin zuen.

—Biktimologiaren bidez —esan zuen Amaiak ahopean.

—Biktimologiaren bidez —jarraitu zuen Dupreek, ia Amaiarekin bat eginez—. Zientzia horren bidez, biktimen profila aztertuta daiteke, baina baita ustezko biktimen profila ere, hau da, desagertu direnen, ihes egin dutenen eta inongo arrastorik utzi gabe alde egin dutenen profila. Kasu horretan, biktimologia zientzia abstraktu bat da, eta ikertzailearen senak berebiziko garrantzia izango du, berari baitagokio pertsona hori biktima bat ote den erabakitzea. Horretan guztian, kontuan hartu behar dira

profil fisikoa, psikologikoa, gizarte-maila eta ezaugarri bereizgarriak, hala nola malformazioak eta deigarria gerta daitekeen beste edozein ezaugarri. Orobat begiratu behar da ea zer-nolako familiarik datozen, familiarik ba ote duten, gaitzik edo patologiarik daukaten, botikarik hartzen ote duten eta xehe-xehe aztertu behar dugu beren jarrerari, izaerari, nahitasunei edo gustuei buruz argirik eman diezagukeen edozein datu. Jakina, ikertzaileak susmatzen baldin bada biktima bat dela halako edo holako, susmoa txikia bada ere, egundoko lana egin behar du, eta berdin du gorpua agertu den ala ez, ikertzaileak buru-belarri aritu behar du, zeren gure memoriak erraz asko traizionatu eta nahastu baikaitzake. Horregatik, izugarri garrantzitsua da arrasto horiek guztiak behar den moduan gordetzea eta horiekin datu-base bat sortzea, zeren, hala, inoiz gorpu bat agertzen bada, edo desagertzen bada, edo biktima posible batekin topo egiten badugu, eta pertsona horren profil bat baldin badator aurrez ikusi izan dugun biktima-mota batekin, orduan, gure burmuinak klik egingo du eta datu-basera jo ahal izango du gaia sakonago aztertzeko.

Dupree agenteak atrileko botoi bat sakatu zuen eta bere bizkarrean zegoen pantailan trajedun gizon gazte eta itxuroso baten irudia agertu zen. Argal-argala zen. Argazkia zuri-beltzean zegoen, eta egunkari zahar batetik atera zutela zirudien.

—Laurogeiko hamarkadan, Noah Scott Sherrington iker-tzaile ingelesak, zeinak Scotland Yarden lan egiten baitzuen, biktima posibleen datu-base bat sortzeari ekin zion, eta horretarako, beren etxetik ihes egindako edo desagertutako emakumeen profila hartu zuen oinarri. Gauza deigarria da, Scott Sherrington agenteak ez baitzeukan emakume haiek hilda zeudela sinesteko inongo ageriko arrazoirik, ez gorpurik ez arrastorik. Ezerk ez zuen iradokitzen emakume haiek inork bahitu zituenik edo gogoz kontra desagerrarazi zituztenik. Hitzaldiaren ostean txosten bat emango dizuete, eta bertan irakurriko duzuenek, kostaldeko

inguru bat zen hura, eguraldi kaskarra zeukaten eta langabezia handia zegoen.

»Sasoi hartan, Londresek amets handiak eskain ziezazkiekeen eremu hartako neskei. Jaioterrian geratuz gero, onenean, kon- tserba-lantegian lan egitea egokituko zitzairen, horregatik, gazte askok etxetik alde egin zuten. Tartean-tartean, behargin adituak etortzen ziren, eta eremu hartako neska gazteei aukera ona iru- ditzen zitzairen zulotik aterako zituen mutil-lagun bat topatzea.

»Nolanahi ere, nesken profilak bilduz eta bilduz, Scott Sherrington agenteak harrapari baten ekintza-mapa osatu zuen. Urteak eman zituen lan horretan, izan ere, desagertutako nes- ketako batzuk herrialdeko beste tokiren batean berragertzen zi- ren, eta zerrendatik kendu behar izaten zituen. Baina, arian-arian, mapa eta profil oso zehatz bat azaleratu zen. Hain zehatza zen, beldurra ematen baitzuen. Scott Sherrington inspektoreak bik- tima probableak aztertu eta hala topatu zuen inguru hartako hil- tzailea, horregatik, erreferente bat da biktimologia erabiltzen du- gun mundu zabaleko ikertzaileontzat. Mapa osatu bezain pronto, ikerketa bat abiatu zuen, ohiko moduan: lekukoak bi- latu zituen, neskak desagertu aurreko azken orduak berreraiki zi- tuen eta profilak fintzen-fintzen joan zen. Lan horri esker, etxetik alde egin nahi zuten neska haiek guztiak hartu, eta zehatz-mehatz ezarri zuen nortzuk egin zuten alde beren borondatez eta nor- tzuk erori ziren harrapariaren atzaparretan. Garai hartan, Scott Sherrington inspektorearen teoriak ez zuten babesik jaso, gaur egunean ez bezala.

Dupreek eten bat egin zuen eta Amaiari begiratu zion. Oraingo honetan, inguruko hainbat agentek so egin zioten emakumeari, jakin-minez.

—Scott Sherringtonek, bere senari jarraituz eta ikerketa-lan bikain bat egin ondoren, bi susmagarri identifikatu zituen. Ga- raian, inspektoreak adierazi zuen «bihozkada» bat izan zuela —az- pimarratu zuen Dupreek.

—Bihozkada bat –xuxurlatu zuen Amaiak, konexioa ulertuta. Duela sei hilabete eskas, Foru Poliziako inspektoreorde bihurtu berritan, emakume gazte baten desagerpenaren kasua egokitu zitzaion. Emakume hura erizaina zen, eta orduantxe hasia zen ospitalean lan egiten, praktiketan. Aurretik kasuaz arduratu ziren agenteek inguruko guztiak ikertu zituzten, eta borrodatezko desagerpen bat zela iritzita, kasua ixteko prest zeuden. Dena den, emakumearen ama behin eta berriro joaten zen komisariara, eta negar-malkotan agertu ohi zen egunkarietan eta telebistan, jaramon egin ziezaioten. Kasu hura ez zen opari bat, ezta hurrik eman ere, gainetik kendu nahi zuten zama bat baizik, baina Amaiak gogoz hartu zuen. Ikerketako datu guztiak errepasatu eta berehala jo zuen begiz ospitaleko mediku bat. Aurreko ikerketan inork ez zuen susmagarritzat hartu, baina hala ere deklaratzeko eskatu zioten, neskaren hainbat kidek biak elkarrekin solasean ikusi izan baitzituzten. Hasiera batean, ikertzaileek ez zuten gizona kontuan hartu ezin izan zelako harremanik ezarri, eta, batez ere, gizonaren jarrera guztiz akatsik gabea zelako. Kirurgialari bikaina zen, mediku-familia bateko semea, Iruñeko ospe oneko sendi batean jaioa. Amaiak ondo gogoan zuen komisarioak zer esan zion gizonari buruzko zalantzak agertu zizkionean: «Ezagutzen dut familia hori. Halako gauza bat erabat tokiz kanpo legoke haien artean». Hitz horiek esateaz bat, errespetuzko keinu bat egin zuen, Amaiaaren argudioek zentzurik ez balute bezala. Amaiak ez zuen gaia berriro aipatu, baina kirurgialari bikain hura ikertzen hasi zen; asteak eman zituen berari jarraitzen, baita lanetik kanpo zegoenean ere, eta horrela aurkitu zuen medikuak erizain gaztea atxikirik zeukan tokia: sexu-esklabo gisa erabiltzen zuen. Ez zen bere lehen biktima, gainera. Gizona atxilotu ostean, beste bi emakumeren desagerpenak argitu ziren. Behin kasua itxita, Amaiak txosten bat idatzi behar izan zuen, susmoak nondik etorri zitzaizkion azalduz, eta esplikazio lauso bat eman behar izan zuen: bihozkada bat izan ei zuen.

Dupreek hizketan jarraitu zuen:

—Scott Sherringtonek bihozkada tinko bat sentitu zuen. Hainbat astez, bi susmagarriak zelatatu zituen, txandaka. Gau batez, ekaitz handi-handi baten erdian, etxera bidean zihoan, gizonetako bati zelatan ibili ostean. Semaforo batean geratu eta, halako batean, beste susmagarria ikusi zuen, eta berari jarraitzea erabaki zuen. Hara non, huraxe zen hiltzailea eta inspektoreak gau hartan deskubritu zuen nora botatzen zituen biktimen gorpuk. Izan ere, Scott Sherrington inspektoreak dena deskubritu baitzuen, eta bere oharrak ikusita garbi dago dedukzio-gaitasun aparta zeukala, baina ordura arte ezin izan zuen gorpuen kokaleku konkretua aurkitu. Zoritxarrez, lehenago esan dudan moduan, garai hartan inork ez zion jaramonik egiten. Hiltzaileak eremu handi-handi batean botatzen zituen biktimen gorpuk, paisaia zakarra zen, eta, horregatik, oso zaila zen ezkutalekua topatzea eta ia ezinezkoa zirudien gorpuen kokaleku zehatza non zegoen asmatzea. Inspektorea egokiera eskasean zegoen: bakarrik zegoen, eremu zaila zen, eta ekaitza jo eta su zebilen. Hala ere, harraparia bere azken biktima lurperatzen ari zen bitartean, hain zuzen ere inspektorearen profilarekin guztiz bat zetorren emakume bat, Scott Sherrington saiatu zen hiltzailea atxilotzen. Berarekin borrokan ari zela, eta hainbat arrazoi tar-teko, bihotzekoak eman zion: batetik, inspektorea bera guztiz harrituta zegoen azkenean munstroa aurkitu zuelako; bestalde, hiltzaileak indar handia zeukan, inspektoreak baino askoz handiagoa, eta, gainera, Scott Sherringtonek bihotzeko gaitz bat zeukan, oraindik inongo medikuk detektatu ez zuena. Biharamunean, han inguruko ehiztari batzuek inspektorea aurkitu zuten, eta ospitalera eramán zuten. Bihotzeko ebakuntza arriskutsu bat egin zioten, eta bizia salbatu zuen. Zoritxarrez, Scott Sherringtonek kordea berreskuratu orduko, hiltzaileak ihes egin zuen. Hala ere, inspektorearen ikerketari esker, gizonaren krimenak argitu zituzten eta bere bederatzi biktimaren gorpuk aurkitu

zituzten. Gaur egun, Scott Sherringtonen datu-basea erreferentzia bat da biktimologia erabiltzen dugun guztiontzat. Sekulako lezioa eman zigun. Bere ereduari jarraitu behar diogu hala krimena agerikoa denean nola hiltzaileak suizidio edo istripu gisa aurkeztu nahi duenean. Scott Sherrington inspektoreak behin betiko baja hartu behar izan zuen, bihotzeko gaitz larriarengatik.

Areto osoari erreparatu zion Dupreek.

—Agenteok, akademiako kadeteok, mila esker zuen arretagatik. Kanpoko polizietako kideok, zuen agente laguntzaileek txosten bat emango dizuete eta bertan izango dituzue Scott Sherrington inspektorearen ikerketei buruzko xehetasunak eta jarrera-profil-etako eta profil geografikoetako biktimologiaren oinarriak. Ikasi itzazue, hurrengo seminarioan landuko ditugu-eta. Hitzaldia amaitu da.

Oholtzatik jaitsi zen Dupree agentea, igo zen toki beretik. Aretoa isilik geratu zen une batez, harik eta argia piztu eta denek begiak igurtzi zituzten arte.

Amaia altxatu egin zen, baina oholtzari begira-begira geratu zen, Dupree egon zen tokiari so. Gizonaren arretak kezka sortu zion, baina, era berean, lausengutzat hartu zuen, eta arreta horren faltan zegoen orain. Orduantxe konturatu zen azkenean ez zuela begiratu Dupreek paperik eraman ote zuen ala ez.

Ikertzaile alemanak zartako lagunkoi bat eman zion sorbaldan:

—Hori bai hori inor txunditzeko ahalmena!

Pentsakor zebilen Amaia. Segidan, Emersonen ahotsa aditu zuen:

—Hara, hara, Salazar inspektoreordea! Badirudi nagusia liluratu duzula. —Inbidia zikina zerion gizonaren tonuari.

Amaia Emersonen aldera jiratu zen, trantze batetik atera berri balitz bezala, eta gertutik behatu zion. Zerbait aldatu zen

gizon harengan. Ordura arte, egoki jardun zen beti, eta ondo baino hobeto bete zituen bere funtzioak. Hasiera batean, Amaia iritsi eta berari lagun egiteko ardura suertatu zitzaionean, Amaia iruditu zitzaion Emerson gogaituta zegoela, eta pentsatu zuen emakumea izatea zela desatseginaren arrazoia: hamaika kide gizon, eta justu andreari lagundu behar! Nolanahi ere, ikastaroak aurrera egin ahala, Emersonen amorrazioa baretzen joan zen, Amaiak lortu baitzituen puntuazio onenak alor guztietan, eta, horren ondoren, gizona umoretsu zebilen berriro. Beraz, Amaiak ondorioztatu zuen morroi guztiz lehiakor bat baino ez zela, galtzea bihotzez gorroto duten horietako bat. Behin edo behin, irribarre egiten zion, luze, hortz zuriegiak erakutsiz, edo zuzen-zuzenean eta intentziorik begiratzen zion, Amaia limurtu nahian. Orain, ordea, gizonaren ahoa marra luze bat zen, bisturi baten ebakidura irudi. Birrikak beteta, masailezurak apur bat goratuta. Harroxko bat, alegia. Amaiak eskua altxatu zuen, sorbalda arinki ukitu eta bidetik kenarazi zuen. Aurreratu egin zuen, eta gizona harrituta geratu zen, iraindu plantak eginez, pistola batekin apartatu balu bezala, eta ez atzamar xume batekin. Hitz eta pitz zebiltzan agenteei iskintxo egin eta aretotik atera zen Amaia, azkar asko, oholtzaren albo batera zegoen atea bilatu nahian.

Bizkarrean, Emersoni aditu zion:

—Salazar, ezin duzu orain alde egin! Seminarioa hamabost minutu barru hasiko da, hirugarren aretoan, eta eraikinaren beste puntan dago. Justu-justu iritsiko gara.

Oholtzara ematen zuen atea irekitzearekin batera iritsi zen Emerson Amaiaren parera. Dupree zen, beste agente batekin batera zetorren. Korridorean, gizon-talde bat zeukan zain: bostekoa ematen zioten eta laudorioak esaten zizkieten, baina hark zuzen jarraitu zuen aurrera.

Amaiak eskua altxatu zuen, Dupreeri dei egiteko asmoz.

—Dupree agentea, mesedez.



Dupreek buelta eman zuen eta axolagabe begiratu zion. Ondoren, burua makurtu eta Emerson agurtu zuen, zeina Amaia-  
ren atzean baitzegoen.

—Emerson agentea —esan zuen, eta, gero, bideari jarraitu zion, kidez inguratuta.

Izoztuta geratu zen Amaia, Dupree gero eta urrunagoari begira. Hala esan zuen, Emerson han zegoela kontuan hartu gabe:

—Harroputz nazkagarria!